

OROZKOKO IPUIN-ESAUNDAK

Jabier Kalzakorta*
Instituto Labayru

0.0. ABIAPUNTUA. LANAREN NONDIK NORAKOA

Badira bost urte baino gehiago Amaia Basterretxeak Orozkoko ipuin eta esaunden gaian lan bat egingo ote nuen galdetu zidala. Ipuin-esaundak beti izan ditut gogoko, eta urteak aurrera joan ahala ez da gutxitu zaletasun hori. Amaiak agindutako lanari gogo onez ekin nion hasiera-hasieratik. Lehendabizi hartu nuen bidea, inguruan nituen Orozkoko lagunekin zein izan zitezkeen berriemai-le zehaztea izan zen. Behin berriemai-leekin ordua finkatu eta gelditu ondoren, Orozkoko auzoetara pozik egin nituen neure ipuin bilako osterok. Bilbaotik kotxez egiten nituen osteretan lekuz aldatu ez ezik, garaiz ere aldatzen nintzela uste nuen. Garai-aldatze hori bitarikoa zen, bate-tik neure umetasunera, bestetik ipuinak indarrean zeuden garai ederrago batera. Ipuina ahotik hara entzuten duenak ez dauzka ahazteko une goxo horiek. Nik neuk mira egiten nuen neure artean hain kontaera miragarriak entzutean. Ni neu bizkaitarra izanik ere, harrigarri eta zoragarri egiten zitzaidan Orozkoko baserrietako euskara, neure Markinakotik hain bestelako egiten zitzaidan!

Grabatu nituen ipuin-esaundon transkripzioa egiteak ez zidan lan handirik eman. Esaera zaharrak dioten bezala, gogozko lekuan aldaparik ez. Behin lana egin eta Amariari eman ondoren, ipuin-esaundok noiz argia ikusiko ote zuten egon nintzen zain aldi luze batean. Nire lantxoa, beste lan batzuekin batera, ez zen, ordea, argitaratu. Neure lantxoa agertuko zen Orozko herriaren gaineko liburu monografikoa argitaratuko zen ere ez zen gauza segurua. Argia ikusiko bazuten kontakizunok beste bide bat hartu beharra nuen. *Etniker Bizkaia* edo *Anuario de Eusko-Folklore* aldizkarietan argitaratzea bide apraposa zela iruditu zitzaidan eta hona hemen, azkenik, idatzi nuen bezalaxe.

1. SARRERA

Ipuinzalea denak badaki ondo zein kostutan duen bere zaletasuna. Ipuinaren zer batek edo zer askok behin liluratu duenak, badaki liluramendu hori behin betikoa dena, eta ipuinaren atzetik ibili ohi da ehiztari amorratu bat ihiziaren ondoren ibili ohi den bezala. Ehiztariak badaki non bil daitekeen ihizia. Basoa da ihizia gordetzen den lekua. Baso itsua da ihizi izua gordetzen den leku miragarria. Ehiztariak badaki basoan ihizi bizia dagoen bezala, harakinaren etxean ihizi hila dagoena, behinola ehiztari batek basoan hil eta eramandakoa. Ipuinzaleak ere badaki kontulariaren ezpainetan ipuin bizia dagoena, eta liburutegiko apaletan gordetzen den liburuan ipuin hilak daudena. Sutondoan entzundako ipuin bizi batek, ezpainetatik harako batek, ipuinzalearen barrua kolpatzenago du liburutegi bateko liburu bateko atal guztietako ipuin guztiek baino. Ipuinzaleak badaki sutondoko epeltasunean ipuinak biziago direna, hori dela berezko lekua, hori dela leku naturala pentsatzen du. Jakituria azal horren jabe egiteko bisitatu ditu liburutegiak, ikusi ditu ipuin-bibliografiak, irakurri ditu ipuin-liburuak, bizi izan ditu ipuinak, eta, inoiz ipuin-biltzaileak idazten badu nola eta noiz bildu zuen ipuina, zein kontulari egoki eta hitzun ederra ezagutzeko zoria izan zuen jartzen badu izkribuz, ipuinzalearen poza gainez egikoa da. Poz horrek gogoetak ekartzen dizkio burura, gogoetek burua berotzen diote, eta halako batean, ezinbestean, erabaki bat hartu du: bera ere ipuin-biltzaile bihurtzea. Norbaitek ehiztari bihurtu nahi baldin badu, badaki tresneria berezi batez jabetu behar duena: erosi behar du eskupeta, irakurri behar ditu hegazti, animalia eta piztien berri dituzten liburuak... Baina gerora konturatzen da eskarmentua bera dela maisurik onena, hiru gauza behar dituela ehiztari on bihurtzeko: berezko sena, astialdi luzea eta eskarmentua. Ipuin-biltzaileak ere hiru gauza horiek behar ditu, Ipuin-biltzaileak zenbat eta

* Dpto. de Etnografía. Larrauri 1-A-5.48160 Derio (Bizkaia)

gehiago jakin ipuinen gainean, hainbat eta gehiago biltzeko zoria izango du. Gogoan dut Mijail Bulgákov-en *Morfina* (Anagrama 238) liburuan ipuin batean dioena. Idazlea mediku egin berria dela, umegintzaren gaineko liburu bat irakurtzen dihardu bere etxean. Irakurri ezezik, bere buruan iltzatu ere nahi ditu beharrezana datorrenean gogoratu beharko dituen gauzarik behinenak, garrantzitsuenak. Halako batean atea jo dute eta gaisoetxe batean umegintza hestu bat izango duen kontua esaten diote. Berehala mediku hasiberri batek duen jarrera onarekin etxetik atera, eta hor doa arrapataka berandutu baino lehen iritsi nahirik. Lokatzak ez dio uzten nahi bezain azkar joaten, eta halako batean, iristen da arnasesetuka. Medikua hasten denean emagin-lanak egiten behin eta berriro liburuko argibideak gogoratzen ahalegintzen da, zeren ondo baino ondoago baitaki umea onik eta osorik mundura jaioko dena medikuak bere lana ondo egiten badu, Medikua gaztea umea munduratu ondoren etxera bihurtzen denean ondorio bat atera du: gauzak ondo aterako badira, irakurri behar da, irakurri, irakurri...

Ipuin-biltzaileak ere badaki kontularia edo ipuin-kontularia (edo nahiago izatera, ixtorio-erralea, bestaldean, Lapurdiko Saran, esaten duten bezala) bere kasa utziz gero, ipuin batzu kontatuko dituen, baina batez ere ipuinik ederrenak ateratzen direna, ez galdezka edo zirika, ipuinen haria biltzaileak berak emanik baizik. Eskarmentuak erakusten du ipuinaren izatea izua dela, ipuina ume lotsor bat bezalakoa dela. Ume lotsorra ezkutatu ohi da, ganbaran, eskilarapean, mahaiean edo edozein ostenderatan etxera arrotz bat, kanpotar bat, datorrenean. Eskarmentuak erakusten dio ipuin-biltzaileari bera beti izango dela arrotz bat kontalariarentzat, eta are arrotzagoa ipuinarentzat berarentzat, horrexegatik, ipuinik ederrenak ostentzeko joera izango dute ipuinlariaren ganbaran, memorioan. Ezkutatzeko hau ez da borondatezkoa, ipuinlariak ez du ezer ezkutatu nahi, baina halaxe da gertatzez. Ipuinlariak inoiz ez daki zer altxor duen bere ganbaran, bere memorioan, uste du, gainera, berak dakizkien ipuinek ez dutela ezertarako balio, orduan biltzaileak bereak eta bi egin beharko ditu zein gauza balioetsua den ipuina adierazten. Biltzailea bere etxera doanean ezinbesteko gauza bat gertatuko da. Kanpotar bat etxetik ateratzen denean ume lotsorra, handik denbora batera, ez berehala, jakina, bere ostenderatik –ganbaratik, eskepetik, eskilarapetik, dolare barrutik...– atera eta bere burua agertuko die etxekoei. Halaberean, biltzailea etxetik ateratzean, sutondotik kanpora doanean, ipuinlariari ipuinik ederrenak etorriko zaizkio gogora. Horrexegatik beragatik, jakitun dagoen biltzaile eskarmentuak ahaleginak egingo ditu bigarren bisitaldirako bidea egiten. Biltzaileak ez du astuna izan nahi, ez dio ipuinlariari bere lanik eragotzi nahi, kontu handia izan nahi du, hurrengo baterako ere atea zabalik izan ditzan. Gogoan dut, esaterako, Juan Rufok zioena. Juan Rufok diodanean denek dakite ipuinlari sortzailea izan zena, ez ahotik belarrira doazen ipuinen kondatzailea. Berak zioen beti izan zela

arrotz bere lurraldean, Mexikon. Ikusten zituenean atso zahar eta agure zaharrak kontu kontari, bera hurbiltzean, hizpidea aldatu eta hodeiez hitz egiten hasten omen zitzaizkion. Ez zuen, Gabriel Garcia Marquez-ek bezala, bere haur-garaietan ipuinik aditu, eta horrexegatik hasi omen zen ipuinak sortzen. Ipuinzaleaz hasi naiz hitz egiten eta ipuin-biltzaileari egin dut jauzi. Era bateko ipuinzaileaz hitz egin dut, tradiziozko ipuinzaileaz, baina denok dakigu ipuina maite duenak era guztietako ipuinak maite dituena, tradiziozkoak edo ez tradiziozkoak. Tradiziozkoak ez direnak sortuak dira eta askotan tradiziozkoa dute oinarri. Orainago aipatu ditugun bi idazleak mende honetako ipuin-idazlerik famatuenetakoak ditugu, eta sortu dituzten ipuinak ez dute guk gogoan dugun ipuinaren eiterik. Badira izan, idazle berezi batzuk tradiziozko ipuina hartu eta ukitu berezi bat eman nahi diotenak. Amandre-ipuina hartu eta itxura harrigarriago bat, gaur egunera-tuago bat eman nahi diotenak. Horrelako bat dugu Quim Monzó (*El porqué de las cosas*. Anagrama 154).

Ipuina bildu ondoren transkribatu egiten da, transkribatu ondoren sailkatu. Sailkatzeko orduan ikerlariak egindako lanak hartu behar dira kontutan. Euskal Herrian batez ere bilketa lana egin da, eta hori da lanik premiazkoena, sailkapenarena eta ikerketarena gerorako utzi daiteke¹. Askotan uste dut behar bezalako ikerketa egiteko jantzitasunik ez dudala eta lehenengo bidean jarraitzeari hobetsi diot. Zeintzu dira Orozkoko ipuinak? Zeintzu dira liburuetan agertzen direnak? Barandiaranek² bildutakoetara jotzen badugu bere idazlan osoetako bigarren liburuan agertzen du bere ipuin bildumarik handiena, nahiz eta besteetan ere aurki daitekeen. Honatx "El ladron de Atxulaur" 58 or., "Las brujas de Supelaur" 62 or., "En Petralanda" 70 or., "Familiares del cura de Alzupuru (Orozko)" 81 or., laminaren hitzen aldaera bat 197 or. Azkueren *Euskalerraren Yakintza* liburuan ez dugu bat bera ere aurkitu. Badago beste ipuin-liburu bat, *Gorbeia inguruko Etno-ipuin eta Esaundak* Juan Manuel Etxebarriarena. Irakurleak han aurkituko ditu Orozkoko hainbat ipuin. Egunotan Anuntxi Aranaren tesia argitaratu da. Orozkoko hainbat berriemaileren etnotestuen azterketarekin. Lan hori irakurtzeko betarik ez dugu oraindik hartu. Lan hau liburu hori irakurri eta aztertu aurrekoa da.

2. BERRIEMAILEAK

Lau berriemaile orozkotarren uzta da bildu duguna. Lehenengoa kontakizun eta etnotestuak "Juana de Arandikoa", "Ildakoak", "Andrea goruetan", "Aingeruak

1) Lan interesgarriak egin ez direnik ezin uka. Hona hemen zenbait: MARTIN ETXEBARRIA. *Euskaldunen ipuin harrigarriak*. Jakin, 1973. Interesgarria da batez ere *Euskeral* (1992) agertzen diren artikulua. Gora berezia du euskal alorretako metodologiaren aldetik: JULIO GAMARENA LAUZIRICA. "Las peculiaridades de la cuentística vasca" 405-433 or. Interesgarriak dira aldizkari zenbaki bereko Juan Garmendia, Juan Mari Leküona, Emile Larre, Luis Maria Larrigan, Igone Etxebarria eta Bernardo Atxagaren lanak.

2) JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN. *Obras completas*. Tomo II, Eusko-Folklore. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973.

iturrian", "Juniko", "Deabru txikerrak I" eta "Deabru txikerrak II", "Petrolio", "Sorgin bolen bidez zezenetara" eta "Ume sorgindua gaixorik" Rosa Olivares Urigoitikoari bildu dizkiogu, 1993ko abenduaren bostean. Orduan berriemaileak 79 urte zituen. "Sorgin zukuzalea", "Erreginarene alaba", "Gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzat", "Laminak", "Artzain enamoradua", "Zubiarena", "Sorgin bolak", "Kriadearen kontua", "Mari Anbotoko", "Ildakoak agertu", "Aspuruko kasu bat", "Juniko kazaria", "Abade bedekatzalea", "Abadeak pasietan", "Begi bakarrarena", "San Martin", "Iru jostun", "Gizon baten bildurra", "Sedazko panilluak", "Eguen santu", "Begizkoa", "Pastorea eta sugea", "Behiaren esne-lapurra", "Azeri kontuak", "Azeri-otsoak", "Iru egiak", "Astoa, txakurra eta oilarrak", "Otsua arantzea sarturik", "Armiarmen arrazoia", "Andre esker onekoa" Sofia Maria Purificación Etxebarriari batuak dira Egurrutu baserrian, Egurrutu auzoan, 1993ko azaroaren hamabian. Berriemaileak orduan 67 urte zituen. Kontakizuna bakarra baina luzee-na "Juan Soldado", Eusebio Larrea artzainari batu genion, 1993ko azaroaren hamabian, Berriemaileak orduan 90 urte zituen. "Laminek orrazi eske" kontakizuna Angela Bilbao, Urigoiti Elexondokoari bildua da, 1992ko azaroan, Angelak orduan 67 urte zituen.

3. ETNOTESTU HAUEN TRANSKRIPZIO, IZENBURU ETA ABARREZ

Bizitza osoa bizkaieuskara entzuten (Bizkaiko lurralde bateko eta besteko euskaldun garbiekin, gainera) eta hitz egiten ibili arren, norberaren azpieuskalkia ez den batean sartuz gero, noiz behinka ezin ulertu txikiak egoten dira. Zintan grabatua behin ete berriro entzun arren, hitz bukatuera bat, edo adizki bat, edo dena delakotxo bat ongi jaso ez den irudipena izaten dut inoiz edo behin. Kasu horietan galde-marka bat jarri dut parentesi artean. Bildu dudan etnotestu-bilduma hau papereratzean, esaunda zein ipuinak baino lehen datozen elkarriketak ez ditut papereratu, Berriemaileari ipuin zein kontakizunaren datu garrantzitsuren bat ahaztu bazaio, nik egindako galdera ere markatu dut. Galdera hauek kontakizun gutxi batzuetan agertzen dira. Begizkoaren gaineko berrietan agertzen dira galde-erantzun gehienak. Nire galderak letra etzanez markatuak agertzen dira. Berriemaileen hitz guztiak jasotzen ahalegindu naiz, tartekatutako erdal hitzak zein hitz egiteko makuluak ere (-a batez bukatzen bada hitzen bat "alaba", esatareko, arnas hartu ondorengo aa makulutxo eta abar). Erdal hitz txertatuak ere letra etzanez markatzeko erabakia hartu dut.

Berriemaileak emandako ordenean, ahalik eta zehatzen transkribatu eta etnotestu bakoitzari izenburu esanguratsu bat jartzen ahalegindu naiz. Lau berriemaileen artean bada noiz edo behin esaunda beraren bi aldaera, baina gehienetan kontakizun desberdinak dira. Lau berriemaileen kontakizunok zenbakitzea ongarri delakoan, zenbakiak berriemailearen arauera jarri ditut. Era

horretara lehen berriemailearen kontakizuna (4) 1.1 izan-go litzateke, bigarren berriemailearen hirugarren kontakizuna (4) 2.3 eta abar.

4. ETNOTESTUEN CORPUS DELAKOA

4.1.1. Juana de Arandikoa

Sorgin kontuak ba asko entzuten sirean orduin, se ori sorginek urtetan deuriela ta bildurre emotoskuin. Aremarietako etzera sorginek urtetan daurie, ta da Juana Araldiko difuntea, esautuko sendun igual suk? Es? Gure, gu bisi gintzen Arandin bisi sen gure etze goienean, bisi slan da... ba aitu ai neupere esaututen nendun Karmen Aundi Berasakoa bai?

- Bai!

- Ba aren ama! Aren ama, da sera, ai joan san ama Soitietatik aurrera ba basora da sorgiñek an orrastuten egoskitan da, ekusi eurienean ai karran berak ikusi esteien da... bera pasau senean an ba, serak es eusan ikusi baia orresixen (?) bat:

- (Da), ai orrasie, aitu se orrasi ederra! - Ta orrasie kuxu ta etzera ekarri.

Da gero aramariak djo ta gero ba egun gustietan etor-ten yakosan a ba... tellatura sorginek da esaten yotzein e...:

*Juana de Arandi
ekarri nire orrasi
espabere laster isango da
sure askasi!*

Da ser ete dan, da ser ete dan urrengo egunean, igual urrengo egunean, igual arik eta orrasie entregau ben arte... O sea que olako sorginkeriak...

(Barreak)

4.1.2. Ildakoak

Gero ba ilek... e... ba urteteuriela bere bai lurpetik, *claro* ba nik entzunde dauket e... ba elexako atetara batek gison batek beti urteteieuben da ba... alabeak esaututeieuben:

- Nire aite da!

Esautu te ba eskue emoteko esateieutzen, eskue emoteko ta berak eskue emoteko esateieutzen, eskue emoteko ta berak eskue emoten e... olakuak eskue erre eiten dauriela ta, eskue emoten ba esan a sertuten da abadeari esan otzen da abadeak berak urtengo dauela. Ta berak urten eieuen da ser gure dauen preguntau eiotzen, esan eiotzen alabeari ser gure dauen preguntetako ta alabeak a... ba abaderi aurrean esan eiotzen ser gure dauen berak, estauela besterik eser gure bera kondenaute daola da miñan daukenan kenduteko, da ai kendu eue-nean:

- Orain trankilo nau!

Einde desaparecido sen da gero es eiotzien urten... Bai,

4.1.3. *Andrea goruetan*

Andrea gor(u)itan egoten sanean ba tximinipean gor(u)itan egoten sanean katu moduko bat tximinetik bera kateiatik bera da... ba...:

– Se katu ete dau!

(Da) serean da ba andrea bildurtuten san a, katuen itxuria ba beukela baie esala katu naturela esala, da gero orduin ba gisona parau egun beten andreak esan iotzen:

– Ba parau sates seu suk bisiñoak paño estosos ikusten.

Esateiotzen andreari:

– (De) parau sates seu ta a ver ser sertuten dosun...(de)

Gisona parau ei sen, da gisona parau senean ba *igual*, tximinetik bera sera ta paldudun³⁾ (?) bategas sertu eieuan da bentanatik (i) urten eieuen da, bentania itxite egon kontrabentana ta gusti! bentanati urtenda selan urten leien da ikeratute danak ori bai.

4.1.4. *Aingeruak iturrian*

Bai, bai... amabietatik aurrera da... ba... *por ejemplo* ba esateben orduen arimen egunean bere aramarietatik aurrera, aramarietatik aurrera, orduin esatoskuen (e...) arimen egunean aingeruek urteten dauriela kanpora, da aramarietatik aurrera esin leitikiala sertu, de ori entzunde dauket ba...

Nire ba... tia Mari Juanen nebea,... nire amorde nebea, ba arimen egun beten, aramariak djo ta gero ba iturriko urik es eukiela ta iturrire ta orduin esatetotzin beti, au aramariak djo ta gero esin lei urten kanpora, baie urik es ei euan da iturrire Alblorreta, Paretxin erreka kontran ei euan a... ba iturrie, de iturrire! Da joan sanean iturrire ba aingeru kuadrillia an... a... ba iturri ingurumarian TXIPI-TXAPA! Da bildurtute etzera. Da urrungo goxean a... in euen ba:

– An egon beadaure TXIPI-TXAPA eineko markak!

Eta joan ei sen da esta:

– Esebe markarik estao!

Au siñesgarriegaiti euen etzean baie... Da gero esateben (e...) ori orreik gustiuk u... ba erretiraute daosela, mesan askenengo ebanjelioan, da goin (?) askenengo ebanjelioan oin estaurie esaten oin kendute dau ta, estaurie urtetan estakit nik selan iseten san len, se nik entzutia dauket bera abadea mesemoten da abadeak seoser e... igerrite egon sala esta?

Pasetan sana da bera egun baten (e...) askenengo ebanjelioan misala sabalik itxi ein euen da orretariko ba sorgiñi seren batzuk deukesanak misala sabalik on askero, elisatik esin dauriela urten da, misala *a proposito* sabalik itxi eurela da urten eueanean sakristik bere ama elexan, da abadeak esan iotzen:

– Ama, ser eiten dosu or?

– Misala itxisu ta gero urtengot!

– Seoser igerrite egon nas baia orain nago seguru nor dan a sorginek daukesanal

Da bere ama isen o sea que...

4.1.5. *Juniko*

Abade ba a kaserue san, da mesemoten egon sala txakur-ausie asmau ein euen da, txakur ausie asmau eue-
nean a:

– Or dator oo, kasa-txakurre, nire kasa-txakurre da, erbiren bat dakar aurrean!

Da mesea erdis erdi itxi durten ein euen elexatik da geio es euren ikusi abadea, ekosten eieuren gero airan da ba sagataka pasetan sala baie, geio esan agertu kondena-
nau sala⁴.

4.1.6. *Deabru txikerrak I*

Abadea eon san mesemoten, da abadeak eukiteuesan berak oi oian almuedapean, kajatxu baten orreik bolok, da e baie mesemoten joaten san orduko erretirau eiteieuan. D(a) egun baten ba, erretiretan aistu ein yakon da berak mesan igerrit euen. Gero ba joan yakon ba, joan sanean kriedea oie eiten an kajan ser ete euan. Kajea sabaldu ein euen da kajati danak urtenda gero esin eue-
san maneja. Ta abadeak *en seguida* igerrit euen mesan seoser pasetan sala da "biarra emoteko eureri biarra emoteko".

Da biarra emotetiotzien, lenengo egurrek ekarten. D(a) egurren batzuk ekarri iotzesan. Gero uretan da, errekatik uretan da, gero emon iotze(i)n esin ieuen geuse onik ein-
de galbai bat. Galbaiagas ure ekarteko, bai galbaiagas bere etzeko katxarroak gustiek bete iotziesan e esa-
nieuen:

4) JOSE RAMON ERAUSKI. *Aien garaia*. Auspoa liburutegia, 1975.313-314 or.
NIKOLAS AIZOLA. "Irugurutze. - errege salomon bi ipuin Iruri'go auskararen artuak" in *Gure Herria*, XXXII (1960) 181-182 or.
VICTORIANO GANDIAGA. "Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz" in *Euskera* (1956) 206-231 or.
JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN. *Obras completas*. Tomo II, 57-58 or.
NILS M. HOLMER. *El idioma vasco hablado*. San Sebastián, 1964, 130 or.
JUAN MANUEL ETXEBARRIA. *Zebeno Haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Ibaizabal, 1991, 344-345 or.
JOSE MARIA ETXEBARRIA. "Zornotzako siniskerak eta ipuinak" in *Etniker Bizkaia*, (1987) 165-184 or.
RESURRECCIÓN MARIA AZKUE. *Euskalerriaren Yakintza II* 241-244 or, eta 438 or.
JULIO CARO BAROJA. *Mitos vascos y mitos sobre los vascos*. San Sebastián, Txertoa, 1985. "Eiztari beltza" = (el cazador negro)", 57 or.
JUAN GARMENDIA LARRAÑAGA. *El pensamiento mágico vasco*. Baroja, 59-60.
JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN. *Obras completas*. Tomo I, 77 or, eta 169-170 or, eta 204 or.
LUIS VILLASANTE. "Gizona illargian" in *Aranzazu*, agosto-septiembre (1969), 10, 250-251 or.
INAXIOMARI ATXUKARRIO. *Iriparrizko printza*. Senda Argitaletaria, 1982, 223-224 or.
GARBINE IBARRA OZERIN. "Ikatzaren prozesua Zeaurin" in *Litterae Vasconicae Euskararen Iker Atalak* 5, (1992) 235-237 or.
JOSE INIGO IRIBOYEN. *Folklore alavés*. Vitoria. Imprenta Provincial, 1949, 137 or.
JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN. "Materiales para un estudio del pueblo vasco en Urepel" in *Anuario de Eusko Folklore*, Tomo 31 (1982/83) 21 or.

3) "Paldudun esan ote nahi du?"

– Ai sikieran a eldu sara oneik i sertuteko da, abadeak berak eikian selan agindu kajan sartuteko da *en seguida* ba abadeak biribildu eieusan.

4.1.7. Deabru txikerrak II

Deabru txikerrak esateotzein da, orretariko deabru txikerrak, gure, nire amordekoak esateuen ba neskatile bat Mansarbitikoa san (eee) Mansarbitikoa san (eee...) Mansarbitikoa emeretzi urteko ba neskatile gaxorik txarto, txarto, ta gaxorik txarto ta eleaxakoak egiten da serean da eleaxakoak eginde ba komuniñoa emoten dabilela abadea konturetu sen almuedapean seoser daukela da esan iotzen:

- Or almuedapean ser daukesu? (te)
- Esebes, de esebes. (ta)
- Ba ori kendute estusun artean ni eñoatzu komuniño-rik emoten (ta).

Kenduerasotzesan ta kendutesenean, ba esan iotzen oñ seuk pentzau orregas ser einbeadosun, da serean da estakipa aranbatera ba bitxoren bateri ba serti otzesien e... ba imini otzesen gero ai bitxue es ei san geio ikusten, e..., txakurren bateri imini otzesen seguru, da ikusi bes geiao, da osatuisen neskatoa da gero kanpora urtetan ai es ei san ba atrebietan. Lotzatute ei sen, da estranjerure juan ei san emeretzi urteko neskatoa.

4.1.8. Petrolio

Da beste baten, emen, Oroskokoa bere neuk esaututen nendune, or Jauregin bisi sana, Petrolio sarra, entzuta eukosu aite arena. Aisterminen eoten san semea ardi-pastore bai da Aisterminetik ba Jauregire airan etorten san ee...? Da danak esateuren or dator Petrolio sarra, Petrolio sarra esatotzen, semeari Petrolio txikerra:

- Or dator Petrolio sarra!

(Da)bela nagosi bet bailitze letx ikusten gendun airan selan datorren da gero ba, denporea joan, denporea etorri, gaxorik parau sen:

– (Da) Petrolio sarra agonian dau! Ta agonian dau, ta agonian dao, ta agonian dau ta agonian dau, ta iños il es!

Da beti il eiten da, iños il es da, askenean a ba, a ba:

– Orreik e almuedapean daukesenok kendute(n) espaitu ori esin leitike ill!

Da auntz bateri arranean imini eiotzesen da auntze geio ikusi be es eurien in. Da gero alabeak pe esateuri(e)en eukesela seoser orretarikoak alaba soltereak.

4.1.9. Sorgin bolen bidez zezenetara

Sera ba burdin kajan eusenean a bolak abadeak, ba gero kridie asustaute ei egoan da "esta eser pasau" eiteiotzen abadeak "esta eser pasau" eiteiotzen abadeak "esta eser pasau" da ba:

– Arrastegin (ii) sesenetara juan gurosu ori sustuori pasetako edo... sesenetara?

– Ai ni sesenetara posik joango nintzateke baia estao es kotxerik eta eser da emetik selan joan sesenetara?

– Bai, joan gurebosu estao problemarik.

(Da) ba kaballo bat, kaballo bat plantau ei yakon ba sesenetara joateko orduin, da kaballo ganean a sesenetara bildu euen.

4.1.10. Ume sorgindua gaixorik

Da gero ba brujoak eoten siran ostein bere sorgiñek, ostein bere eoten siran se nik (ii) entzunde dauket, ba sera, gure tia Marijuanak eta eukite euriesen mutil bi aite ta ama il yakuesen ba neupe esaututen nendusen, Antonio ta Tibursio. Antonio piperrakas Urigoitire be etorten san sarri da Tibursio sarrena ba sei urtekoa oian gaxorik txarto:

– (Da) ontxe il eiten doa, gerutxuan il eiten doa, don-txe il eiten doa begik itxite ba, il beadau, t(a) il beadau, t(a) il beadau!

Ta erratz ibili ei sen gure Tia Mari Juanan aite, aite difuntue ta ba labea garbituteko iñarrea preparentan dabilela, andrasko bat pañelue olan okospera estute pasau ei san ta esan iotzen:

– Selan da umia Tiburtxu?

Preguntau iotzen ak atzoak eta esioan esetarako esaututen, da labapaluas jo beadauela, ba eliotzen andreari ba gure tia Mari Juanan aitek:

– Ori de, sorgine orrek tauke ba ori mutikori gaxorik eta labapasmeruas djo beadat eta!

Andreak es eiotzen itxi da gero orduin ba igerri euren orrek sorginek daukie au gaxorik eta joan san San Felicisimora da eskuplario bat ekarri otzen bedeinketute, da iminiotzen buruti olan sartute da altzau esin eieuren se eioan txarto. Olan etxunde daola olan buruti te sartuas naste olan ien euan da:

– Ba! ya atzena, atzeneko sera ein dau!

Atzeneko sera ien dau, baie a san mejorie andik joan yakosan gaxoak.

Ipuin hauek Rosa Olivares Urigoitikoari entzun dizkiogu, 1993ko abenduaren bostean. Berriemaileak hirurogeita hemeretzi urte ditu.

4.2.1. Sorgin zukuzalea

Ba esan otzela batek gisonari, ba seguru urrengo goxan jateko guk esaten du emen sukue urunegas, da serean galdarian eiten san soruko sue, galdarian pentzetot, bestetan Seanuri or gustietan esaten dala morokilla, baie emen sukue isango san. Urrengo goxan (e) esnea ipini bero-bero, da gero danak armusetako andi da danak oira joan orduin paretan sen andrea eiten sukue, da sukue eiten parau, bajatuten yakon tximinitik bera sorgine d(a) esaten yeutzen e:

– Suku apurtxu bet, ta suku apurtxu bet!

Da beti eskel da esan iotzen gisonari:

– Parau beardosu seuk e! Ni bildurtuten daust orrek ee... sorginorrek etorten danak!

Gisonak esan otzela:

– Bai neu parauko nas!

Da bajatu isen sorginori da esan (...), bajatu san da:

– Xauxa! atzorik ona biserra lusetu yan ta!

Da Xauxak ba desafiau(?) eola eta beste gausa bat esan bearrekoa:

– Xauxa atzorik ona biserra lusetu yan ta!

– Selan deitutomas (sic)?

– Ni neure burul!

Ni neure buru, ba asi eisen egurrek botaten, egurrek botaten ene! PLI-PLA!, PLI-PLA!

Da morokilori, morokile edo sukue, emen sukue esaten da ta, suku orreri bueltaka bero-berotu dani en esan iotzen:

– Ai! ekarristesu suku apur bet, suku apur bet!

– Kendu gurebona!

Joan isen yaten da dana erre. Claro! ostantxean be sailto eiten badau sukuek erretan daus bastarrak gustik. Erre isen da negarres! joan isen sorgin en erreuniñora gaurian da esan ietzen:

– Ser pasetan yatan, nok ein deu(n)e?

– Neure buruk!

– Eure buruk? Aguntain eure buruk ein badaue!

Claro! arek listue neure buruk esan dauen, da gero bestiak esan dotzein neure buruk ein dauela.

– Eure buruk ein badaue aguntain!

Morokillon en asuntoa au isen ei sen.

4.2.2. Erreginaren alaba

Da gero beste bat bere, ba joan ixen gisonen bat ba erri batetik ba bestera, ta ilundu eiyakon pentzau dauen baño urrunago plantau yakon da se eñ euen e?

– Ene! on ya ilundu ein yata suntu einbiot!

Sorginen o bertan pisteren batzuk edo sen ganetu.(?)

Arbolara ganera lgon bidau, pagodi aundiren bat eieuan da selai pagodi orretara, ganera lgon ei dau. Asten dire ordu biek edo orretan etorri ta etorri sorginok eta:

– Bakine? Sera, erreginien alabie yaona gaisorik ta txarto! da osatutiarren a *saber* se diru emon gure ine baie etxuen osatuten eel!

– (Ta) ser yaukena ba? Ser yaukena ba? – Batak bestiari sorginok (ta).

– Ba joan soman elexara, da elexara joan orduin, ogi bedeinketu bet emoit en gatzine (?) ogi bedeinketue edo gero ostien, aik errekorteak, gure denporan baie aurretio ogi apurtxu bet bedeinkatukoa sestotxuas da pastikune pastore gosu emoitoko...

– Da kusu yaona ogie da... elexati urteitorduin yausi yakona ta makurtu es eitearren itxi ta sapu batek jan yona ta elexako ba ate aurreko arri losean aspin yaona ba ser

a sapoa, da ak yeukenan saman da etxoin osatuten! da danak ekarri ta esin osatu!

Da gisonorrek esan euen: – Da erre joan orduin lenengo-lenengoan preguntau biot egia bada ala gusurre dan.

(Da) joan isen da esan iotzen:

– Egie da erregin en alabea gaxorik?

– Bai ene!! Dabis mediku danak, da osatuten daue nantzat *bueno* (...) seinbet diru dauken osatuten dauenari!

Da joan isen da, joan isen errege orren etzera ta esan ietzen:

– Neuk osatukot oril!

– Mediku sare ala?

– Es! ni enas mediku!

– Medikuek esin daude osatu ta suk osatukosu!

Esatzen:

– Bai neuk osatukot!

– *Bueno* itxiten yatzu osatuten badosu!

Joan isen gisonak artute da arri-losea altzau ieuen da, baie antxe sapoa egon be. Da aitu iotzen da saman barrure sartu barik saman ieuen ba ogi satie bedeinkatue kendu iotzein ai, da eroan iotzein e ba erreginiorren alaba orreri da osatu. Da gero, ai abarastute parau isen osatutiarren, da gero beste batek eieuen:

– Ai! Lagun orren bateri kontau dotzon gison orrek ser ien yakon, selan abarastute parau den. Esan iotzen:

– *Bueno* neupere einbiot beste ainbeste! Ta esan ieuan:

– Neupe yoan biot!

Da ai bere parau isen arbola ganean ta, gero ei euken nagosie ba aginduten dauena, erregine selako sorginek gustiok. Esan ieuen:

– Bakine! Lengo egunean gisona euki yonau or goien ganean da erregin en alabea osatu ein yaune(n)! Aitu bio nau ondo ee? *A ver* bayaunayan!

Sorgin en batek esan eieuen:

– E! e an don gison bat! An yon gison bat!

Danak orratzakas il ein euen pikau ta pikau ta pikau!

4.2.3. Gaua gauezkoentzat eta eguna egunezkoentzat

Nik ori estot suntu, baie ostantxean emeti Gorbein baten bat etorri sala berandu beñ Urigoitirantza emen, etorri sala *bueno igual* ori konturen bat isengo da, baño bueno ta etorri sala (...) ERRE DRIN-DRAUNI arranakas berak pentzauan ganaduak direala baina arranotzean da esan ieuan e ba esan iotzen ba gison orreri:

– Estok egunes ya naikue ala?

Ganaduek sirelakotan:

– Gaue gaueskoentzako ta egune eguneskoentzako. *Mecachis la mar* gison ori saindu bere arin, karran! Gaue gaueskoentzako ta egune eguneskoentzako ta? Bera gaues etorri...

4.2.4 Laminak

– Bai, emen Uriguitin su egon sara an eleisan aspin, an isen sala, beti joaten sala e sera bentanpera joaten yakosela ta Arandi, deituten san, ori de goikoa nik esaten dotzut, Egurtun bai goikoa, da or egon sana biekoa da gu be andikoa, isen gurie etzez deituten Artaingoa da baia bueno, guriari estotze iñork Artaingoa deitu iños oneri biekoa da orreri goikoa, da an Uriguitin Arandi deituten san, Arandi, da joaten sala ara:

*Arandi, Arandi, entregau nire orrasi,
espabere sure askasil!*

Da ordun asita geiao ango etxean lokorik edo sororik esala faltau.

Nik esautu nendun aorko ama es, ama es, e... Irurogei ta amabost urte isengo san ango ama il sala baie bestea oraintzukoa da an Santurten baie, euki bai jeneroa baie burubakoak da esan otziela:

*Arandi, Arandi entrega nire orrasi
espabere sure askasil!*

Baie lokoak edo soroak estirela faltako botatziela aik maldasiñoa.

4.2.5 Artzain enamoradua

Ori ba, neskato galanta(k), galantak isete ei sirean laminak gero, galantak isete ei sirean da, mutile enamorau sen urrean. (Da) abadeak esan otzen ba eskonduteko serto orduin:

- Esin sara egin e...! Ori esta sera gero, ori lamiñea!
- ¡Qué va!
- Baietz, esin saitekes orregas eskondu!

Ta esan iotzen ba berak ain neskata galanta.

– Suk kargu ein beadotzesu oñek, gure lango oñek barik erpak eukikoingo ditus.

O sea que, guk daukesusen moduen atzaskala eukin barik, erpak biges oilloenak, olangoak eukingo dauesala.

Da mutil orrek e... ba ormatetik (orren batetik ?) deskobridu dau, da baietz agiri. Erpak ei eukesan! Da orduin disgustuen disgustuegas il ein san. Il ord(u)in ileko egunean edo gauean beti jentea auso orretatik, urrunetik joaten siran danak errosarioa erresetan da, (da), ei euesan errosarioa erresetan danak, eta, bost edo sei edo sasp (ba). Errosarioa/k/ erresetan sien da. Bueno ba gero ardaoa edo edosebere emaiten yakon juaten sianai be ta, *bueno* da gero atzera, da orretan daosela RA! sartu ei sen andraskoren bat ta atea itxite ei euan, benta... estakit nondik sartu ei sen da arrautz... intxaur kaskarati, intxaurren kaskarati, barruti, atera ei euen sobrekama eleganten bat da tapau ei auen dana, ene selango sobrekamea! ba baten batek e:

– Etxon eroango ba! Ekarrri yoan moduin fasil etxon eroango ba!

Esan i euden, josi te josi te josi es kendu sobrekameori, imini euden josite ta orratz gustiokas engantxaute baie eldu sanean ordue atautan sartuteko, agertu isen da sabaldu euan fasilidade gusti gustin RA! Batu ei uen atzera lengo lekure ta eskapau!

4.2.6 Zubiarena

Ba baten bate[k] ba jun bear ei dauen ba esnea kontintxuen artute. Neskato bat joaten ei sen eroaten, salduen baie igerri euan buelta aundie, se errekea esin ieuau pasau da joan bear pausuetati espabere errekea pasau esin. De joan bear eiauen ba buelta aundie da eiten eiauen:

– Emetixe, pasue baneuke nik berbertan esnea saldu-teko eroateko, saldute (ta).

Esan ieuau:

– Es ete da egongo diabru bet emen subie eiteko!

Da es etzenotziela subie eiten(?) da esetzi ordun o(?) ba neskato ori juen san, abade edo fraile sarren batek edo esan iotzen e ba:

– Ba, ori esan badotzu ingo daurie orrek. Da bakisu ser ein bea dan, akabuen ori eñ baño lenago ollar baltza surie eta gorrie, da oñ suriena badakit, baia estakit señek parau dauesan, olloak, ollarrak kantau dauenean, kantau in auen suriek ego biek onan jo, da *claro*, ollarrak baten batek eiten badau lagunek ai ene! egoakas PLA, PLA, PLA, PLA! orduin kukurruku eiten dau besteak! Da asi ei sirean liburuik eroan da sagata iten, da ensegida asi sen ollar surie kantetan da esan oriela:

- ¿Qué gallo canta?
- El gallo blanco.
- Cal y canto.

Latigo bearren, gero estakit gorrie ala baltza, isen orduin erregular gorriegas bere, bierra ei odien, da baltza isengo san da:

- ¿Qué gallo canta?
- El gallo negro.
- ¡Todos los diablos al infierno!

Da arri baten faltan parau sala ta ai esin euan iñok kolokau. Da gero bat eiuean koxoa, ta danak ari be joiten ai espasan koxoa isen, arimie eukela europe se akabauko odiela ser subie da, arei koxoari gero joiten,

Eta ori subi ori nungoa san Kastrejanakoa edo?

– Esan eite oden, nipe estakit nungoa isengo san, da esin odiela akabau, baia buelta aundie ei euen neskatok da buelta ein es eitearren e... alangoren baten esan euen ori... Ai es... *es que* esan euen ori desan ord(u)in urten otzen diabruiek, da diabruiek esan orduin *a ver* segas pagaukotzen ba sera, ba ori pentzaues estauela eingo, da esan otzela:

- Da segas pagaukostesu?
- Arimias.

Da orduin orduin e... subie eiten. Ori leku askotati dauket entzunde e!⁵

4.2.7. Sorgin-bolak

Bai orrek e... emen bein esatodein, nik estakit e... egie bada espada, emen Lapursulon, es Lapursulon es Iruguitin, Iruguitiko atxean, Supelaurreko kueban, juten sirela estakit San Juan egune edo estakit nos mantille baltzen bat bota eiteodiela, da gero estait atzerantza edo aitegurea se erresu estakit da an egote sirala sorrien modukotxo batzuk da atxine, oñ estakisu selan orratzak eukiten dirian plastikuitxu, plastikusko sertzuietan, kaja-txuitan?

Bai ori baino onango tamainukoak eoten siran atxine baie egurreskoak, da alakoak barruin eukite ituesala, batzuk inteligentzikoak, beste batzuk ba... indarrekoak da beste batzuk karrakakoak, karra eiten daurienak, da an elejidute egoten sireala, da orduin, San Juan egunian lelau, San Juan egunean eukite euriesala, da gero baten batek euki in euen onek e... Aispuru ango punte-puntan oñ dauena ori antena ori? *Bueno*, an bestaldean ipini dai-gun baie emekoan, ba or an egoan Aispuru ba kriedie ei

5) Hona antzerako ipuinak bil daitezkeen lekua.

VICTORIANO GANDIAGA. "Arantzazuko Folklore-gaien biltzeaz" in *Euskera* (1957) 218 or.

JUNES CASENAVE-HARIGILE. "Sineste zahar eta ez hain zahar" in *Anuario de Eusko-Folklore*, Tomo 35, (1988) 65 or.

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANZA "Txillardegil". "Zubererazko transkribaketa bat" in F.L.V. Año XII Número 34 Enero-Abril (1980) 29-31 or. Batuerako forma utzi eta hona zubereraz: (Laminak eta basayaunak gisala, Ligi-ko zúbia laminak egini tüzü haitatü züzien gai bat ühün ligiarrak etzien haboo fida buützeat been lanaen eta deütü zütien laminak bena laminak etzütüzün dohanik lanü nahi ai kalthegin tziezün herriko neskatillak edderrrena abentuko gai bel batez laminak abiatü sien lanin zúbia geogo goago ai zen laster asken harria sen esarteko neskatila haen senargeia lotsatü zen ordeinkun etzekin haboo seregin eta oitü saun ollategi batetaa juntzen eta, "zambe", borta zabaltzen dü oillarra iatzartzen barateta usteükhen tzin atxekandena zela bihaen emaitela jllen hastenda, eta bee kükürükü handieniro igortendü ordeinkun laminak harritu sien debrik eaman lesan ollar madarikatü hua asken harria üthöki zien uhaltzilal eta hartakoz, da, geo Ligi-ko zübin harri bat ments).

TXOMIN PELLEN. *Animismua Zuberetan*. Haranburu editorea, Donostia, 1985, 88 or.

RESURRECCIÓN MARIA AZKUE: *Euskalerriaren Yakintza II*, 233 eta 382 or. Biltzailearen oharra: Martiko ollar es el gallo nacido por Marzo de un huevo puesto en el mismo mes.

---: Anuario de la sociedad de Eusko-Folklore 1921, 82-93 or.

FRANÇOIS CERQUAND. "Légendes et récits populaires du Pays Basque par M. CERQUAND, Inspecteur de l'Académie de Bordeaux" in *Bulletin de la société des sciences, lettres et arts de Pau*, VIII (1874-1875) 282 or, IX (1875-1876) 254-255 or.

JEAN BARBIER. *Légendes Basques*, Librairie Delagrave de Paris, (1931) 25 or.

JUAQUIN LARRETA eta ARZAC. "Irakurgaya Alonsotegiko Zubia" in *Euskal-Eria*, Tomo V Enero a Marzo de (1882) 129-131 or.

PIERRE DUNY PETRE. "Eiheraberriko zubi zaharra" in *Gure Almanaka*, (1959) 33-36 or.

ORMAETXEA, NICOLAS "Orixe": "Nombres del diablo" in *Euskal Etnologia*, 21-XII-1930, eta *Idazlan Guztiak Artikulu eta Saiakerak III*, Etor argitaletxea, 1113-1114 or.

JUAN GARMENDIA LARRANAGA. *El pensamiento mágico vasco*, Editorial Baroja, 52-53 or.

JUAN GARCIA ATIENZA. *Guía de Leyendas Españolas*. Colección Guías de la España insólita. Ariel, Barcelona, 1985.

GANDIAGA, BITORIANO: "Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz" in *Euskera*, 1956, 231-232 or.

INAKIOMARI ATXUKARRIO. *Iriparrakoa printzak*, Sendoa argitaldaria, 379-380 or.

euken estakipa, abade edo fraile sar edo (...) da esan euela kriediak a:

– Gaur bai, *ocho de mayo*– Oñ *ocho de mayo* etzan iseten Orduñekoa lenago *ocho de mayo*–

(Da) esan euela;

– Jo nor on leitikian Orduñen o sesenak ekosten!

– Gurosu yoan ala?

– En segidal!

Laño moltzoren bat ipini ei eudien se plasean ganean da andik ikusi ei euesan sesenak. Kriediak e... kriediak iku-si e... euesan.

Honen antzerakoa da Aita Barandiaranek bildua:

Aizpuru'ko abadiak familiarrak eieukesan eta kriediek bein egun baten esan eiotzen:

– Ai! Ze ederto gaur arratzaldian juango nitzaken Madril'go zezenketara!

Ta abadiak esan eiotzan:

– Ba, gure badozu juango gara ORREKAZ.

Ta mamorroak artu ta bazkariya jan da gero Madril'go zezenketara juan eiziran. Ta Plaza'ko orientean gelditu ziran. Eta ha zezenketan be eingozan besten batzuk be mamarrodunek, eta batek esan eieben:

– Alko an Aizpuru'jo abadie bere kriediegaz.

Ta ez eutzen ziñestuten. Ta orduan berak:

– Ba, gure badozu, beren zapatie ekarko dautzuet.

Ta ezan da egin, ekarri eieuen abadien zapatie.

Baña gero Aizpuru'ko abadiak ezan eiotzan:

– Ezpadostazu ekarten zapatie, bekokiend fundiokotzut adar bat.

Ta gero adar ori fundio yakon ta, nai ta ez lotzatu ez egotiarren, atzera eman eutzan zapatie⁶.

Horrelako ipuinak kontatu ohi dira apaiz aztien gainean. Euskal Herrian bi izan ditugu ezagunenak bata Axular da (herriak halaxe dio) eta bestea Joanes de Bargota. Hona Bargotan bertan neronek batutako antzerako kontatera:

En Madrid viendo los toros

Y que se marchó una vez a Madrid a ver una corrida de toros en aquella, aquella nube, de ahí a Madrid, que es la coronación del rey, iban a la fiesta, y bueno pues que (...) una corrida de toros fueron a la plaza de toros, y estaba la ama y él, bueno, y estando (...):

– ¡Mira dónde está el marqués de Villena!

– Ahi va le voy a quitar el zapato, y fue y que le quitó el zapato y le dejó con un zapato sólo.

Que estaba en el aire el marqués de Villena, que había estado estudiando con él magia y que dijo:

– A que está Juanes ahí, el gran don Juanes ahí. Pues ahora le voy a plantar un par de cuernos a ese!

6) BARANDIARAN. Gorago aipatutako lana, 81 or.

Y le plantó un par de cuernos de toro allá, él a Juanes⁷.

Berriemailea: Martín Hernandez Gil, Bargotakoa.

Biltze-data 1993ko urriaren 29.

Begien bistakoa denez kontaera guztiak zerikusi handia dute elkarren artean. Ohargarria da Barandiaranek hirurogeitamar urte inguru bildutakoaren berdina izatea bestea ere. Apaiza Aizpurukoa dela esaten da kontaera bietan.

4.2.8. Kriadearen kontua

Da gero beste egunen baten in dauen, ba sabaldu dauesan andriek da, jakin es batuten, se orrek atera esese, batu be ein bear ei dres, jakin bear batuten da esin leike batuten, "Ene, danak biar eske, ta biar eske ta biar eske (...)".

Emen bean barrenean, Aspuru egongo da igual kilometro bi ba geao egongo da gora, da bieko txarkotik imini deuesan ur eske, ure eroateko etzera, da gabas katxarro gustik (faltan) bete eñ otziesan katxarro gustik bete.

-Bakisu selan? Galbaie bakisu, galbaia, ori babea edo indabea garbituteko ta orrek alanbreak daukien an bustine imini eutzen aspitik, es urek urteiteko da deukesan katxarro gustiek danak bete uregas...

Bueno ba beti orduin katxarroa eskatu otziesan(?).

- Bueno estao geiao katxarorrik!

Da ures bete otzesan, da gero akordau ei yakon or ardik be *claro* euki da esan eieuen:

- Bakisu se ein beadauren? Onexek lana baltzak ardi kapa baltzak edo pardoak, baltz-baltzak estie iseten baia ilunek esan iotzen:

- Bueno ba, onexek suritu eistesues, onek e ba kapa baltzok suritu!

Da a esin ei euden, da bertan bera itxite eskapau ei eusan eskapau.

4.2.9. Mari Anbotoko

Es ori, ba an a! esin dauen yoan gure elexara, esin dauen Anbotoko orrek elexara yoan gure, da akordau

7) Juanese de Bargotaren gainean badira hainbat lan ikuspegi desberdinetatik ikertua. Guk geuk prestatzen an gara bat baina hemen ez dugu lekurik ondorioak ateratzeko. Hona bibliografia apur bat: JULIO CARO BAROJA, "Juanes de Bargota y el mito de Henda" in *Estudios vascos y brujería vasca*. Txertoa 18-23 or.

AGAPITO MARTINEZ ALEGRIA: *La batalla de Roncesvalles y el brujo de Bargota*. Pamplona. (1929) 187-264 or.

BARANDIARAN. *Obras completas II*. La gran enciclopedia vasca, Bilbao, 1973, 478-480 or.

JOSE MARIA IRIBARREN, "Viana y sus aquejarres el brujo de Bargota" in *Retablo de curiosidades*. Imprenta Heraldo de Aragón, Zaragoza, 1940.

JOANES edo JOANIS Bargotakoaren antzeko bat Marques de Vilena eta doctor Torralba ditugu. Biak aztertuak ditu Caro Barojak. *Vidas mágicas e Inquisición*, Madrid, 1967, "Magia neoplatónica y arquetipos legendarios" 212-215 or. Abade eta santu askoren gainean esaten omen zen hegaz joaten zirela batetik bestera. Hor ditugu zenbait ballabide Jaengo apezpikua, San Atidio. Luzeegi dateke berri guztiak ikustea ikus: FRANCISCO J. FLORES ARROYUELO, *El diablo en España*. Alianza Editorial, 1104, batez ere 72-89 or. "El traslado al lugar satánico" pasarte. AURELIO M. ESPINOSA. *Cuentos populares españoles*. T. I., Madrid, 1946, 403 eta hurrengoak.

egun baten eroan, eroan auden aurrean seragas, estute gurdin estute sokakas da elexara sartu orduin, sartuten doiela edo su te gar eskapau elotzen. Da gero saspi urte eiten daus emen da Anboton beste saspi urte.

- *Eta ikusten dabenak garretan ikusten dabe edo?*

Bai, bai, ori atxine, suk claro, ba "olantxe, olantxe ibiliko sara", garie estakisu selan atxine olango fardo andiek eiten sirean.

4.2.10. Ildakoak agertu

(...) Deituten sana, (da) an jaioa san, nire ama (da) an ba gure abuelok eta ekosi ein auden ori, ba egun i sen Lanbarri geituten san loben gerra denporan, barkuin egonda euen e... Gernike edo estakit nor bonbardeute joan da be odei sen (?) barkuin eukesenak, karliste klasekoak, ta an il sen ba ai abogadu egon sanean estudiantan ba joaten isen Madrilera eta gero Madrilen krida bi ei egosan da udan bakasiñoietan ona etorri. Krida ba isen ei sen ona ta ona, ta ona ta bestie insoportable, baia aguantau eiteiotzen, aguantau besteak eta bueno... gero ba esan iotzen:

- Bueno ni atzenengo urtean ya akabetan dauenean estudioak ba ni... noa Madrilen, ni moja sartutera noa!

Da atzenengo urtian ba etorri sianean a... ya etorteko plantau sianean udan bestea moja sartu isen baie euki ieuan arek neskato lagun bat, da neskato lagune il ein yakon. Da il orduin gaubetan agertuten yakon da beti gaubetan agertuta ya bildurtute ei euan da joan ei sen abade ta ibili ei sen da, olango baten, baten batek esan iotzan:

- Seoser euki biona!

Fraile sar sar sar batengana da esan iotzen:

- Juana urteiten badotzu preguntaios a ver parte oneti ala txarreti datorren, da parte oneti badator ser ofresietan yakon, da parte txarreti badator, saspi estatus ondorago etxatzula etorri, arrimau! saspi estatus baino urrunagoti egon beadauren parte txarreti etorriaskero, ta parte oneti, ta esan iotzen:

- Es parte oneti nator! Bakisu ser ein bear dosten(?) gure badosu? Mesa bat atera!

Esan otzon, non atera beadauren mesea, da esan ieuan:

- Ba aterakotzut!

Da joan isen ia elexara, da atxineko elexan sartzen siran ba goxeko seiretan, on... ser aundie daukee, baina antxine san goxeti abadeak mesea emoiten ta jentea goxeko seiretarako joan isen, da esan iotzan:

- Bueno ba sertu beadot ba mesea eskatu dost.

- Mesea eskatutzu?

- Bai!

Ba urtengotzu elexatik urteiten dosunean urtengotzu eskue emoiten en *acción de gracias* baia es eiosu emon! Emoiosu panillue.

Da emon iotzen panillue ta bost atzamar marka ipini otzesan, dana erreta panilluen. Dori gure abuelok Iberrekoak eta ekosite eieuken panillu ori bost atzamar markak erreta! Da esan iotzen:

– Geure Jaune altzauten dauenean orduntxe ekosikosu ya orduin serurantzta, da geao estosu ikusten. *Es que sartutorduko isengo san, in otzena, erre bost atzamar markakas eieuna. Da orrek esan iotzen saspí estatus kanpora parte txarreti badator...*

4.2.11. *Laminekin Aspurun gertatutako kasu bat*

Gero emen ee Aspurun pasau sen beste kasu bat bere, *bueno pasau* i sen, orrek egia bada espada nik estakit. Ba seguru bere, eukisen ardik ba or daus ser bi edo iru egongo dire ba egonda nao baten baie estakit senbat daosen. *Bueno* an ei eukesan arditxoren batzuk, ardik es errebañotzarrak, baie Aspurun puntan baia eukesen ardi, ta ba Neboko Juan Mari joan san neskatori(?) ardi erutera da estaua kuxetan a lamiñok, estaua kuxetan ba neskatori de eroan da ba Nebo topetan da topetan da ser pasau yakon bastarrak... topetan da ei dau kuebaren bat an Axpuruko atxean ta joan sirenean e... barruin arrabea da esanlotzen e... ba joateko ba ateretan baia ipiniotzen burriñesko atea da esan iotzen:

– Ba orrek etorri bear dau egunes beti gauean listo daos, baie egunes eiten daude lo!

Da joan ei sirean Nebok(?), da arrankau ei auden palankakas, yoan da arrankau ein auden da gero baie... da gero sera ta konfiantzea kuxe otzenean itxitotzen orren atefara edo *bueno* bera etorri ya eingo san larrituko san barruin de. Gero ei euan libertau, da libertako euanik ba joan ei sirean ba, ba apilliduk bautisue selan emon leion, da bautisetako esanlotzen orrek abadeak eta gero ba apilleduk Hierro Palancos ipini iotzen. Hierro atea eukelako burriñeskoa da palankakas bota eudielako Palancos.

Da Hierro segitan dau Palancos akabau de epellidue. Estosu entzuten oain Palancos? Hierro bai!

4.2.12. *Juniko kazaria*

Ba ori kasari aundiren bat isen sen, jentea elehan dauela ba ostaiko atea ei euan artesekoa sabalik, da asmau dauesan txakurrek danak kasarik, kasatxakurrek danak ausike, da mesea itxite yoan a bera bere serera kasan, da gero kondenau in sala mesea erdis-erdian itxite.

– *Da arreskeru zeruan dabilela trumoie ta danielen ezta? Edo trumoie edo euri-zaparradak dagozala asmetan duriela batzuk txakur-ausiak edo?*

Da ostantxean a... euki eingo da edoser askok esaten dau orain estudietan dagozanak orrek estireala baie odeie berdetan (?) lañoa bata bestea jaitzen daudela... Ni danakas enao e... selan txakurreri ataketan dotzen... txakurre esin lei euki ondoan odeie dabilenean e! *Ojo e!* Txakurre doa *bien e!*

4.2.13. *Abade bedeinkatzailea*

Ba ara, or len maiatzen Santa Kruz egunean asi ta gero estakit nos akabetan san e... kosetxea akabau orduin edo domeka gusti-gustietan da astegunetan ba odei bedeinketu eiten isen san a... abadeak a... sakristauek jaitzen dauesan kanpaiak da serak ba abadeak urteiten dauen elexpera, elexpean ba bere orasiñoak eiten dauesan da gero baten akordau ei yakon emen Olarten pasau ei sen ori, da gure amak euen baietz egie sala, ba sera esan otzela ba batek:

– Neupe suntu biot ba ekosi biot... orrek!

Gero abadeak esan iotzen:

– Gero estoleari es itxi gero!

– Esetz! Estotze...

– Gero ai ekosi sein ori ekosi, es itxiteko estoleari gero!

Estolea da emeti, len... e... sepulturetan dirue botaten sanean bere ba seguru seinbet diru ba alango erresue, ta ai kuxu beasan da mosue emon da gero abadeak erresetaue da gero dirue an!

Ba noberak ein de erresau bardin isango san ori!

Estau abadeak setan, noberak erresau eskero einde dau. Ba orduin ori joan sala, deituten san Jose Ramon, da arek agarraute baie ostantxean, gero sapatea bai sapatea or Osterminen edo agertu isan, da emen orduin sapatariñok eroan es da:

– Au abadean sapatea dok!

Ekarri otzeila da abadeak esantzen:

– Es! nik ori emotot da ori esta nirie.

Da gero eiteodiela *en vez de* sapatea emon, orratzen bat edo sobre eukitodeila ba abadeak bedeinkatuten egon orduin, esin deus despatxau emoteko orratzori baie orrek mutiko orrek agarraute monagillue da esan despatxau beinketuten da bedinketuten sera mutikue eske da an elexan aurean (?) Dañobeitiarrek or da an ei eusan antxine arantzakas einde entrada da arañño etorte isirean, aunte lako adartzarrakas, baie andik es ei sirean pasetan, ondorau da an da an.

Abadeak iserdie botaeiauen. Esan iaue:

– Barriro es neu gero! Olango konpromisorik, barriro es! Esan iotzen mutileri:

– Ser ekosi ok ba?

– E selango aunte lako adartzarrakas etorten isen dien!

– Eu defenditan geau kostau yatak eurek defenditan baino.

Da esan euela geiago es berak estoleagas.

4.2.14. *Abadeak pasietan*

Da gero beste baten be ibili ei sen abaderen bat ba atxiñe olan ekosten sirean emen, ba euren liburuas ba paseoan, paseoan leiduten be emen Urigoitin egon san bat eta piska bat jota ba euan bere esateuen:

– Abadea dan abadeak, amen danak liburuk pasau bear daus egun gustietari!

Bueno il beako dauen atxinekoak be or kamiñuetan ibiltzen siran gora ta bera. Da ei egoan kantoren bat elegantea da esan lauen abadeak a, kabaloren bat ondoan presentau ei yakon da:

– Ai selango kanpo ederra dan bedeinkaturik!

Es bedeinkaturik estotzen esan...

– Selango kanpo ederra dan!

Da abadeak kontestau otzela:

– Neupere frenuik ederrak orrek kaballoak paretako!

Da orixe esanagas nastean dana odeie ta komediak asi sirala, da gero abadea egon arren elexati urrun ba serak sakristauek, sein an egon sein or egon, sakristauek joiten euesan kanpaiak, da kanpaiak jo ord(u)in ba erresetan asten san abadea eta *por ejemplo* lberren a egoten siran abadeak etzean espadaos bere ba bidian badaos kamiñotan ibiltzen sian *en general* e... da edosein lekuten odeie entzuten eurien nastean erresu bet, ya emen (...) da arek DIN-DAUN, DIN-DAUN, DIN-DAUN, bueno danok erresetan odeiena yoiten daus.

4.2.15. *Begibakarrena*

Gero orrek euken baie erastune emon otzen, begibakarrak emon dotzen besteari e...? Ori estait ba setatik pasau ba ori sartu sen ardi artean, ardi artean kortan sartu yakon pastorea da besteak esan dauen ee...:

– Nik kuxuko satut.

Sabaldu ein auen kortako atea da parau isen anka sabalik da ardik, *uno por uno* pasau gero beste ori atia itxi ta beste ori kuxetako. Da kuxeta auen orduin ba ilekoen narrue da se ein euen ai lepoan ipini, da ikututen, ikututen yoan sanean arditzet pasau da (...):

– Pasau nok, pasau nok ni!

Da orduin esan otzela, ba ballenteagaitio, ba emon otzela anilloa edo sortijeja edo emon otzela ba begibakarrak besteari, da arek esan ite euen: (estakit)

– "Emen ñoak" edo "emen ñoak" edo "emen ñoak" edo estakit ser. Da besteak esin eiosten yan (?) begibakarrak, tuertoak gero itzu danak da esan euela:

– Orrek, orrek, ni noian leku gustietari ni(ri) segitan daust.

Da olango juen siren baten, errekarren baten edo presaren baten se ein euen?

Bota ein auen anilluri, da bestiori ain saratara joan i sen.

– "Emen ñoak"! edo estakit se esateuen, "emen ñoak" edo "emen ñoak", "emen ñoak" edo "emen ñoak"!

Da joan isen, da an ito isen. Presaren baten pasau in bear euen da, da presa orretara bota dauen da ari segidu otzen dana akabau. Te ardi narrue eukiten espadau kuxuten yeuen baie...

4.2.16. *San Martin eta deabrua*

Arto pilloa ei euken diabruiek, ei euken pilloa einde da San Martinek falta, es ei euken San Martinek ereiteko

artorik, da se ein euen e, asie, oin San Martinetan erretiretan da ta aik arto pilloak, da asi ei sirean señek arto pilloa ganetik pasau. Da diabruiek DZIII! pasetan ei euen ganetik arto pillue da, San Martinek sapata aundiekas ai erdi-erdire. Da (...) ta ak galdu beti, ak galdu beti, baia ak artua kuxeteieuen sapatetan da, da gero kendu da ai gorde ereiten urengokoan ori bai.

Ori besten bateri entzun dotzet e? Beste bateri be entzun dotzet⁸.

4.2.17. *Iru jostun*

Bai iru baie sentzun bakoak isan ei sian, sentzun bakoak.

– *Zelan da asieratik?*

Baia ama batek iru alaba

– Euki zituala

Da gure dauesan eskondu eitia, da eskondu eitia, da batentzat etorri sen nobioa desan iotzen amak:

– Gero es eisue berbarik ein gero e!

– Ser ba?

Sirean atrabidak es ekienak berbas, da ei euan sutondoan lapikoa tire bat, danak jateko gero, bai, asi ei sen POL-POL-POL lapikuori. Batek esan iotzen:

– Que va, que va la ola, quitale la tutulutera!

Ba lapikuari:

– Que va, que va la ola, quitale la tutulutera!

Tapeagaitio te besteak:

– No te ha dicho pare que no abras!

Besteak:

– No te ha dicho el pare que no abras!

Gero besteak posik bera eskonduko ete dan:

– Yo que no abe con emie!⁹

8) San Martin da deabruari edo jentilei artoa ostu ohi diena. Baina San Pedro dela ere esaten dute leku batzuetan.

Zegama aldean San Ixidro omen da honatx kontatera on bat:

Artazie euki atio, artoa noiz eiten tzan ez mentzekin San Ixidrok.

Etsaei eun baten kantari al zela, ara ze alitu zion gue Santuk:

Antza Beltza lorán bado,

artoa eiteko goizago

Elorritxoá lorán bado

artoa eiteko giro do.

Ola jakin tzon San Ixidrok artoa eiteko garaie noiz tzan.

XABIER AZURMENDI. "Zegamako kontuk" in *Egan*, I (1993) 165 or.

9) AZKUE. *Euskalerraren Yakintza* II, 411 or.

MAYI ARIZTIA. "Amattoren uzta" in *Gure Herna* (1936) 213 or.

AITA DONOSTIA. "Cuentos populares breves" EA, 1928, 38-44/94-99/143-

49; EA, 1929, 368-376 or. *eta Obras completas del p. Donostia*. Tomo I.

131-155 or.

San Antonio auzoko andre batek hariginak zirela esan zidan, hona esandakoa:

Iru aiztak, iru –nik orretara dauket– ibiltzen ei sien da batek nobixue etorrite, nobixue ta, sera apurtu.

– Titila tta tatala- beti amak

– Esaut isilikon da segitzeko bierrari

Atzera arepe apurtu ta:

– Titili ta tatala. (San Antonio, Zorrontza)

KANDIDO IZAGUIRRE. "Oñatiko liñagiñ-iztegitxoá" in *Euskera*. 1956, 181 or. Tirtarixa.

"An onek tirtarixak, tirtari-unaak, dako"=Ariaren "miar-mankaak" edo "me-unaak", andik, bihurtzekero, "tir" eteten zan aria, Itz onek badu Oñatiri ere "iru aizpa titilifotola, asma-eziña eukaiñen, ipuñia: Tirtarixa tirteten..."

Zoritxarrez ez dugu delako ipuin honi Kandiko Izaguirreren izkribuetan aurkitu.

4.2.18. Gizon baten bildurra

Ser bai ostantxean Juan Luis Eana, Juan Luisen gisona il iakon da edurre ta eiñ euan da... *bueno* ba bideti dolela berotuten edo esaotzien:

– Bai, bai, etorri sates, etorri sates gora!

Etorri ei san Juan Luisen gora... da beste gustiek tran-kil da, gero baten batek ipini euean kendu tapori te, indabak gora igo in eiten daue irikiten astorduko eta askok igoiten daue ganera e... kollareas olan... ba kendu, ta aiste-a esan konturatuten ser eite euen, esan ei euen:

– Emen gora igoiten dauenik esta biera bajatzen!

Pentzau ban lapiko orri atendienan dabilela ta atzera berba eiten:

– Ori neugaitio diño orrek gero e...!

– Emen gora igoiten dauenik esta biera bajatzen.

Berbas, berbas, berbas, berbas, atzerantza, atzerantza, atzerantza, atzerantza urten ei euen kanpora da esan lutzen:

– Estauela inok gora igon dauenik bera bajatzen, ba nik pai!

– Segaitio dinosu ori ba?

– Ba seuk estosu esan gora igoiten dauena estala biera bajatzen?

– Biera bajatzen?

– Bai!

– Bai, ni bai bajatu!

– Es, nik indabak igoiten isen dauenak gora ai esate iseotzet gora igoiten dauena estala biera bajatzen!

4.2.19. Sedazko panilluak

– Es, bai dauket ori, bai urrengo... neure nebea il yatan or lelengo or etxeetan da areri dauket entzunde gero soldadu, gerra-denporan egon sireanean ba jente asko da sera batek periodikueri sue emoiotzen da selango joa bakotxetik panillu sedaskoak urten in euden da emon iotzen jenteari ikusteko ta selango panillu sedaskoak da batek bat gorde. Ein deuen baten batek:

– Entregaisu, nok kuxu dauen entregau deiela se espabe damu isengo dau te.

Aik panilluek ateraten dausenak periodikutik ta pentzau biar euen ak badakila nok kuxu dotzen, makina bat bider esan i euen entregatzeko ta ba baten faltan parau isen.

Periodiku bateti ateraten audenak olako panilluek, gero ekosi auden e... da, da selango panillu sedaskoak!

4.2.20. Eguen santu

Baie osterantxean a gure amak bai esateuan, *jueves santo*, bai eguen santu egunean, da bariku santu egunean, baten batek ba beti eoten san emen, (...) taloak erretzen edo, da falta ei euen ogie da ein dauesan taloak. Da ein auen TIPI-TAPA-TAPA aspiran da atzenean taloan

kurtze gorria agertu yako an, da gure amak estau gure iseten!

Arek kurtze gorriek ser aundie!

– Egun bildurgarriak izeten ziran ezta?

Da oñ *en general*, *en general* orduin joiten dana mutile berba iten *ojo* gero e! faltadune jaiotzeran e! Bai. Gure alabeape esan auen e... selan ori es (e)i yako inos aituten an bere lagun bateri bere, baten in yakon ene aste santuin e bariku kurtzeko gauean, ba aitegas a joan kasan da esan ieuen:

– Ni enoa, se jaitu (?) ein yakon, bariku kurtzeko egunean beso barik umea ba *bueno* besoak edo eskuik barik, besoak badaukas baie eskuik falta daus da or, orretan egun orretan erre urrungoan dana kiskeldute umia, da bisirik atera ein auen, bisirik atera. Berak gasollina bota, da berak su emon da berak, da... atxine bai e... orrek eukiten dauen e... biarrik eta es eiteko...

4.2.21. Begizkoa

– Begizkoa, begizkoan be len sinestuten zan ezta?

– Bai!

– Ta ori begizkoak nok egiten eban sorginek edo?

– Es, edoseinek.

Euki beadauesan ogei urten diferentzie, begiskue egi-teko da ori de egie gero e! Geuri sartu yatan(?) gison bat, gison bat, neu akordetan nas ondo geure kortara, ta guk geunken bei suisa bat *elegantea* da gison orrek besteik estau esaten:

– Aaaa! Ori de bei ederra! ai ori de bei ederra! ta ori de bei ederra!

Da estau gison orrek eskapau te bei grabe ta grabe ta grabe parau!

Gure amak esantzen:

– Ala!

Berak gure estauela eingotzen e! ba antxe aik euken deseoaan da ogei urte (...) begiskoa eiten deun(?) persona-k daukenak ori serori, fatalidade ori ba eiteko. Gure ama difunteak esate euan ba:

– Beie normal-normal egon don, eta oñ añ txarto añ txarto!

Esaosten e:

– Ekarrisen, serak begisko-bedarrak, begisko-bedarrak!

Ekarri nitxun(?) igurdi lepo gusti, kurtzeak ein otzesen, kendu yakon.

Ementxe Albitzun be dauket entzunde ba egon sala ta es ei auken famelirik da bat e eite euen:

– Ai selango ume ederra daukesun, da ai selango ume ederra, da selango ume ederra!

Ume ori ensegida negarres! Sek egin dotzo(?) da inondipes, inok es ei euan ingo dauenik, da alako (alango?) baten esan iotzen ba ser in dotze serean da, bai ba *lo unico* baten batek ein isengotze, ta atxine asko eitotzen begisko-bedarra umeri begisko ein es eiteko umei.

– *Ta zelako bedarra da ori?*

Begisko-bedarra? Len estotzut esan? da perejilen antzeko bat, Luslok asko eukiteuen or karabien, sera, serien ondoan, or ba Jesus etze txikerran ondoan, labean(?) ondoan asko euki euan.

– *Dana alperrik baie.*

– Es, es, es.

Da gero apurtuten dosunean botaten dau, beilegi moduko esne beilegi bet botaten dau, da ide besterako ona bere. Edari bat eiten bosu da aregas pasau ide begilina(?) ensegide osatuten dau.

Da orrek umiorri, d(a)esan lotzen:

– Bueno orduin begiskoa ein dau.

Da antxine eukite euriesan umeak, bertan biera, bertan biera, bertan biera, bertan biera.

– *Buruz bera?*

– Es, es, es. Es que umeak iñondik soportau bisien da sera orrek esan lotzen e. Baegosan antxine kuranderak pere; begiskoa kenduten dauenak.

– *Astuak edo astiak ze izen euken? Kuranderak ezta?*

– Kuranderak, kuranderak.

– *Eta gure dan persona bati be eitxen jako begizkue? Mutil batek neska bati edo?*

Bai, agaitio ogei urten diferentzie bear bestela asko galduko ei sen baie (...) ogei urteko diferentzia, es que andik bera balitzake begiskoa askori ingo yakon¹⁰.

4.2.22. Pastorea eta sugea

Or be ei egoan ba pastorea emen, Gorbein, da se ein euen? Emoiten otzen ba esnea, esnea, esneas lodituten ei da enseguida sugetzarren bat, da botaiotzen txistu bet da ya! etorte isen sugori da emon esnea, da gero gisonori eskondu ein ei sen de eskondu ordun beste destinoren bat kuxu dauen da gero eroan auen androri aurrean Gorbeien, da esan lotzen e:

– Ene! nik emen txistue ein orduin etorri yatan suge bat!

Txistue eiten deu, Idator sugori, makal-makal, makal einde da euroi ataketan, defindidu sireanean posik, euroi ataketan desesperaute etorri ei sen sugia.

Ori be entzunde eukiot.

4.2.23. Behiaren esne-lapurra

Da ensegida asten da gero e... esneas aurrean, ementxe Gallertun bere egon san ori! Egun baten ba:

– Gaur gure beiek esne asko deko.

Urrengoan:

– Esne gitxi deko.

– *Bueno ser euko dau bei orrek, ser euko dau?*

Alango baten e onan bentanean aspin ei euken alanbrea sarratute olloa ta ollarrak ta asi sirean olloak eta ollarrok sagataka ta:

– Ser ete da, ser ete da?

– Subie!

Da eskapau sen orrek, sube orrek. Da gero ein auden ba:

– Auxe da gure beieri edaten dotzena esnie.

De kargu ein otzien de beieri ta txalari be gure es, gero il odienean subia selango orroiak botate eieuesan txala baino gurago! Bueltan, bueltan, bueltan isterrean a sein sapaldu beiek igoiteiotzen da esnie edan!

Dana isen ei sen esnea il odeinean, gero il iode(i)n bijilan egonde e!¹¹

4.2.24. Azeri kontuak

Bai sera, bai, otzoa ta aseria lagun, lagun da otzoa fuertea da otzoak a bota! ardik eta asurik eta bota, da gero aseriek yan da egun baten esanotzela, ba il odeinean, ein euenean kasea a otzoak, esan otzoari:

– Aitik selango tortillia yauan- irargi betea posoren batera eroan euela da:

– Aitik selango pas... era yauan an, tortillia yauan barruin edaten bok ori ure.

Da asi sen edan t(a)edan t(a)edan t(a)edan t(a)edan, da alango baten gorde eiten (...) ta sarratutzela ta jausi sala posure ta otzoa ito! ta gero berak a okelea yan espabere otzoak dana artukotzen da.

4.2.25. Azeri-otsoak

Da serapere, bai, atxine ba fiestea isen sanean ba, atxineko tostadak edo arroskoletxea isaten san, flanik eta olan etzan eiten seretan, da in odiela arroskoletxea, ta arroskoletxea da aserie baino otzoa urruntxoago da esan otzela:

– Aiko! erdu bentanara ta kuxik! – Aseriek otzoari.

– Kuxik sera yaok, arroskoletxea yaok ta sera eskillar bat edo seoser imini(...) da axe ser orrek, otzo orrek bota in otzen, arroskoletxea ori biera ta RI-RA, RI-RA! berak arnago yan aseriek berapaiño ta listoago isen sala aserie otzoa baino.

4.2.26. Iru egiak

Da gero beste gausa bapere, ba batek pasau gure eieuen erreka bat o... Itzesoa parte batetik bestera, *la ría* seinda *La ría de Bilbao*, alde batetik bestera, baie esin pasau aseriek da esan lotzen barrakeruari pasetako ta, ba badauken dirue te:

"Es ba, es!" Baie iru egi esangotzesela gero e! iru egi.

Bueno barrakeruori biar barik parau sanean esan lotzen:

10) Begizkoaran gainean orain arte dagoen lanik interesgarnena Anton Erkoreka *El mal de ojo en Euskal Herria*. Edita Instituto de historia de la medicina española (Salamanca) Euskal medikuntzaren historia-mintegia Salamanca-Bilbao 1994.

GARCIA GARMENDIA, *El pensamiento mágico vasco*. 1982, 90-91 or.

11) Honelako kontaera gehiago baditu Jose Maria Satrustegik bilduta ikus: *Euskaldunen seksu bideak*: Jakin argitaldaria, Oñati, 1975. "sugeak eta esnea" atalean. 207-212 or.

– *Bueno sartu aril*

Eroan auela beste aldera ta beste aldera eroan orduin esan iotzen e:

– *Bueno* ba kontaisek orañ ba, da kontautzen:

– Esaten ai! selango gauaroa, da selango gauaroa baia estau gaurik egune lango argitasunekorik.

– Egiok!

– Gero esaten daude, selango bedar ederra, selango bedar ederra bai bedarrik estao garie lango ederrik.

– Es, egiok aikoixe be!

Da gero urrengokoan esan iotzen ya elduten bestaldera da esan iotzen e:

– Da esaidak beste egiuri!

Te tardau, te tardau da:

– Esaidak beste egiuri!

Te ya elduten oiala esatotze:

– Ba erropa sarrak daukesus de niri baino geiagorik pasetan espadosu, ostabere sarrakas egon beakosu!

– Ai be egie dok ori bere!

Aserie pasau sala bestaldera.

4.2.27. Astoa txakurra ta oilarra

Bai bat egon sala astoa arrantzaka, da urten euela ta gero ba astoa ta katue, da txakurre bere bai, baia sarra sala ta (...):

– Batera jungo gosak!

Juan sien, astoa, txakurre da gero katuren bat topau dauden da gedarres da:

– Ser pasetan yatak ba?

– Sarra naselako il gure deust ill

– Etorri ari bere gugas!

Joan san katue eurokas, da gero ollarren bat an kuku-rukuke ta ser pasetan yako ta ba:

– Bier sapatue ta niri ill!

Usabak il gure jateko, ollarorrek esan otzela da ori:

– Etorri ari i be!

Da gero yoan sireala da gero astoen ganean ba txakurre, txakurren ganean katue, katuen ganean oilarra, da joan siran etzeren batera da iegosan lapurrek etze orretan gausa asko eroanda, etze sarren baten lapurrek da parau ei sirean da, astoa arrantzaka txakurre ausike, katue miauka ta oilloa:

– Ene! emen yatosak guardiasibilek! – Edo estakit ser.

– Emen yatosak!

Ta (...) eskapau ei euen lapurrek da gero, bildurtu ein euesan danak da, eskapau ein euden da gero sartu eisi-rian etze orretan: astoa kortara, txakurre atetan, katue danak euren lekuitan. Danok plantau ei sirean. Da lapurrek eskapau dauden¹².

12) Ipuin honen azterketa eta ereduak ikusteko IGOÑE ETXEBARRIA, "Herri-ipuinen baten aldaerak eta azterketa" 507-530 or. in *Euskera*, 1992, 1 37. Liburukia (2. aldia) Bilbo.
Baita AZURMENDI, XABIER "Zegamako kontuk" in *Egan*, 1993-1, Astoa, txakurra, katua eta aharia, 169 or.

4.2.28. Otsoa arantzea sarturik

Ostantxean a... inos entzun dot o selan otsoa egon arantzea sartute txarto da kurau gisonak eta lagune gison-negas ein dala ori entzunde eukiot.

4.2.29. Armiamen arrazoia

Da gero be bai baten bat egon isen atxine ba: segai-lio Jaungoikoak araña orrek araña orrek, araña pesteok setarako eingo ete euesan? Orrek araña, armiarma, araña. Ta setarako ein ete euen, da setarako ein ete euen, da gero se ein yakon joan san erbestera, ya erri bateti bestera ta ilundu yakonean ya ikusi dauen lapurrek selan lapurrek ostelen segiduten dotzen, lapurrek ein ordun esan eieuen:

– Ai ser eingot?

Kuebea yakin in euen non dauan da sartu isen kueban barruin da gero ba arañeak ensegida telea ein ein auen, da besteak esan eiauen:

– Ortxe kueban eongo da e! Orrek badaki ori kuebea ta ortxe kuxuku! Ortxe kuxuku!

Eldu sien kuebako atetara da esan ieuen:

– Es! emen esta sartu iñor! Se an sartu basan ori tele-ori arañak einekori ori, ori apurtu beadauen barrure sartuteko!

Da bueno eskapau ein (d)auen baster gustiti topetan.

Makina bat bider esan ein auen: – Setarako ein dauen araña ta atxine auen salbeta, auen salbetako atzenean.

4.2.30. Andre esker onekoa

Sera bai ba, ori ba gerra denporan, abaritzen batek egitotzila ba sera ogie, detzeetakoak estakit senbat ume juntetan siela, da dana airi ogitxu bana emoiten da umiok eitodela danak burrukan ogiek, batzuk aunditxoagoak, beste batzuk txikitxoagoak, beste batzuk txikitxoagoak, danarik eiten siela, da bat egon sala neskatotxu bet, ogie beti txikerrena eieuan be beste danak burrukan ibiltan eisirean ba aundiena seinek kuxu da, batek txikitxuena, da ganera erreparduten dotzeinen (?) emoitotzienari eskerrak emote iotzesan ba bestiok kuxu al badaude aundiena, da eskapau. Da gero egunen baten ein dauen ba sertu, ba imini dauden dirue, barruin ogi txikerrenean da esanietzen:

– Ba egie da gero txikerrena?

– Bai, bai, bai.

Da neskatotxu bet beti-beti txikerrena daroiana. *Bueno* dirue imini eiauden, alargune isen ei sen amaori da juan isen etzera ta ba *bueno* ebaite es itzi, ta ebaite asi orduin dirue barruin da esan iotzen:

– Ene alabatxue, soas da sertisu, ba entregajosue ekibokasiñoren bat eukin daude, dirue dao barruin.

Da ba juan isen neskatotxue sela a ba amak esan dauen an dirue agertu dala ta ekibakasiñoie:

– Es ekibokasiñoie esta isen, seu isen sara umildiena seuk emoiteisendostesus eskerrak ta ori seurontzako, seuk nai dosuena erosteko.

Ba posik, gero ba alargunoi dauen etzea, gero ba orduin pobresea, da orduin ondo parau sirala.

Ipuin eta etnotestu hauek hirurogetazazpi urteko Sofia Maria Purificación Etxebarriari batuak dira Ibarra auzoan.

Biltze data: 1993ko azaroaren hamabian.

4.3.1. Juan Soldado¹³

Juan Soldao trasto bat isen sala, da yokoan ibili bere bisimodue yokoan pasau euela, ta ori trasto bat isen sala, entzutia, Juan Soldao ba etorri sala soldaduskati de jenteari ba dana, dana gusurre besterik es euela esaten, gusurre baño besterik, da preguntau eutzela a ver selan dabilen, da bera ondo, berak gure dauena dana daukela, yan da edan da dana eiten dauela, berak gure dauena gustie. Juan Soldau isen sala trasto bat ta beti yokoan ibiliten sala, da yoan sala esaten gendun or Abrisketan bisi sala da etxera yoan sala ta tropesau sala Birjiñeagas, da San Josegas, da seragas irurek juntau sireala. Esan eutzela, San Pedro be bai egon sala, da esan eutzela eskatuteko berak gure dauena dana, da berak emongotzela da Ama Birjinak esan otzela:

– Nik emongotzut emon al dodana dana!

Eskatuotzen lenengo yokoan bera yarriten dan lekuin, berak gure estauenean estadila altzau, estadila iñopere altzau andik yari dan lekuti.

Da San Pedrok (oo) esan eutzela:

– Egoari ixilik ik estakik esebere ta!

Ta San Pedrori es otzen yamonik pere ein. Olan ebise-la, da eskatutzen gero karta batzuk, kartak berak gura dauena dana berak irebasteko, da galdu gure dauena berak galduteko. Olan da emon eutzesala danak, eskatu eutzesenak Birjina orrek emon eutzesan danak, yokoan kartak da bera yarriten dan lekuin bera altzau es eiteko. Berak gure espadau iñopere altzau es eiteko. Da bape esotzen eskatu beste konturik da yoan san yokoan erririk erri. Da yoan san erririk gustietan, danean irebasi eiteuen seguru, ta jendeak bildurre artu eutzen ak dana irebasten euela ta bildurre artu, ta gero esotzen iñopere yokatuten da bakarrik dirue akabetan, da iñok lagundu es da pentzau euen erri batetik beste erri batera pasetako egun askoan. Da erosi euela lau ontza txokolate, lau ogi ta beste lau botilla ardaa:

– Orrixekas elduko nok ara errire, elduko nok!

Da yoan sala bidean, yoan da yoan kantzaute ta esan eutzela bidean, bide kurtzero baten (baten bati):

– Emeti yoango ete nok, orti yoango ete nok!

Da eldu sen pordiosero lango bat, eskeko bat, da eskeko orri esan eiotzen ee:

– Emen, emeti nundi sertuten da?

– Ba egon nas erri bateti ta emeti yoan biosu, urrun yoan biosu.

– *Bueno* ba agur!

Libre bat txokolate ogi bet ta ardaa botille bat emon eutzan. Yoan san beste erri batera da erri orren atzean da barriro beste bategas. Ak barriro eskatu otzen limosnea da emon otzen ari be. Len gitxi ta orain gitxiao. Gero irugarren, yoan san barriro ta beste bat. Ta esan eutzan:

– Onan da onan, da atan da serean da.

– Neu nator andi baia urrun dao, an arimaik pe estao...

Da limosnea eskatu eutzen len bapes, oñ bapes danak emon eutzesan. Da eldu sen goiko errire ilundute gauean da eldu sen seguru te (eskekoak) esan iotzan:

– Orti ta emendi yoan blokl!

Da lelengo argie ikusi euen lekure eldu sen errire.

Iru egun da gosea itzela ta yo eutzen atea ta andra alargun batek urten eutzen ta selan dabilen da ba berak gosea daukela serean da yaten emongo eutzela. Da yaten emon deutzenean, tripia beteta parau sanean, a konforme da esan otzen:

– Oñ ostatue emongostesu!

– Ostaturik es, ostaturik esin neike emon!

– Ostatue bai, ostatue emon beadostesu serean beste batek emoiten dauen (...) onenak baño obie isengo nas ni te!

– Baia esin nei, esin nei, se diabru koxu bat etorten yata gaurik geienetan ona, ta okerra da!

– Iguel da!

Yoan siran lo andra ori ta irurek. (Da) lo egon sala diabruiek yo otzen bentanea seguru te:

– Su diabruie dau bentanan!

Altzau san seroi Juan Soldao.

– Axe bera dok!

– Ba barrure aurrera!

A barrure etorri (san) barrure, da sillan jarrite da golpeka serean Juan Soldaok (yo euen) da ankas gora geldi diabruori an.

Da agarrau boltza bat, euken seguru, boltzan artu, sartu ta bota euen oian aspire da yo euen buruas atea ta:

– Ño, miñe ein dauela ta burue kendu otzela!

– Burue, ondikarren geiao eingo (d)euat, isilik egon!

Da diabruori eukin euela da gero orretati kendutzela ta diabru koxu orrek aike, eike esala isilduten da yoan eisan da andreorri esan eiotzen e:

– Estaukesu porra bat edo mallu bat edo estaukesu kortan? (da)

– Bai! gisona neukan neuk argine, da arginen serak.

– Ekarrisu neutzako porra bat.

Ekarriben porra bat da ak dana apurtutzen diabru orri, da len koxo da gero koxo andiegos ta txarto da atea sabaldute esan iotzen:

– Urteik emeti ta eskapaik ta barrure es ari etorri oñ ee espabere urrengoan il eingotzut (aut?)

¹³Ipuin honen berri galdetu niñean bernemaileari esan zidan: *Juan Soldadoren kontue entzutea dauket bakarrik, bakarrik apur bet esebies eta gero beste gauza batzuk galdetu nizkionean ipuin luze hau eman zidan.*

Da diabruiek eskapau euen inpernure, da inpernuen egon san. Da andre orrengana urrengoko egunean badoa ta:

– Bueno gauerarte ta gauean etorriko nas da. Banoa yokoan!

– Yokoan es ari ibili emen jentea okerra dao, dirue yokatuten da emen.

– Igual da, ni arreglauko nas.

Dirus bete da gabean serrori Juan Soldadoori. Dana dirus beteta bisimodu terriblean bisi san seguru, da alan-go baten (ee) ba Juan Soldao sarrik il sen il eiteko denpora ori eldu yakon da, denpora ori eldu yakonean a Juan Soldao ori yoan ei sen serure. Serure yoan ei san atetara ta gison orrek San Pedrok esan ei otzen:

– Esan neuan nik esateko, da alan da se oñ an beko ate gorrire yoan, yoan ai!

Badoa beko ate gorrire ta yoiten dau atea ta urteiten dotze deabru koxoak. Esautu dau koxo orrek da yokoan inpernuen¹⁴ dauesen danak eroateko serure, espabere bera inpernure yoateko.

Danak irebasi otzesan inpernuen euesan danak eroan euesan aurrean, da eldu sen San Pedroren ate orretara ta San Pedrok jenteari pasoa emoitzen, esan eieuan a RASTI ateori itxi ei otzen berak ta, San Pedrok atea itxi ei otzen:

– I or egonai!

– Emen egongo nok!

Yarri gaitesen. San Pedro yarri san, urregorriko yarleku orretan da altzau bai.

– Enok altzauko!

– Altzau biakok! Se bera etorriko neure bile ta (Jesus?)

– Igual dok etorten bok gatu daiela. Yoan siran baia inok altzau esin da atzenean bakeak eingo dogusan¹⁵!

14) Berriemaileak seruen, zeruan dio baina huts egite bat da dudarik gabe.

15) Pasarte hau da traskribatzeko zailen, mila aldiz entzun dut zinta eta hor agertzen diren hitzak ulertu uste ditut. Esaterako normalena izango litzateke *bakeak ein daigusan* baina *bakeak eingo dogusan* dio.

Sombreroa artu ta bentanatik barrure bota eiauen da ak ekarri, da ekarri euanean da bera sartu sen serure, ta an akabau san seruko kontue¹⁶.

Berriemailea Eusebio Larrea, artzaina lanbidez. Orain Orozkoko Iberra auzoan bizi da. 90 urte.

Biltze data: 1993ko azaroaren hamabian.

4.4.1. Laminak orrazi eske

Mendisurieta esaten deutzu ori (...) eta gastaña denporea isan sala eta orrek Arandikoak, Arandiko etzea da Karmenaundi Teresakoa orren propiedadean orko etze-koak joan ei siran gastañak batuten da, Mendisurieta an lastran, lastra bat dago, olan, an lastran eieusan sorginek, laminak orrastuten eieusan da onek ikusi ordun ba juan ei siran, ara sulora, Jentilsulo dau an kueba bat, han sartu ei sirean, baña orrasiek an itxi ei eudiesan an, bueltan, eta onek ser ein eudien onek, Arandikoak, artu orrasiek eta ekarri etzera, eta gaudiak (jaubiak?) amabik eldu ordun, amabietan ba:

Juan de Arandi,

ekarrisu nire orrazi,

espabere laster isango da

sure askasi!

Eta artu orrasiek eta artu etzera erun eudiesan.

Berriemailea: Angela Bilbao, Urigoiti Elexondokoa (Orozko) 67 urte.

Biltze data: 1992 azaroan.

Lantxo honen meritu guztia berriemaileena da, ni traskribatzaile hutsa baino ez naiz izan. Esan dezadan, azkenik, ipuinok bildu nituenean senditu nuen poza helezki nahi niokela irakurleari. Ipuinok merezi duten azterketa hurrengo baterako utziko dugu.

16) Ipuin hau oso dokumentatua dago auzo literaturatan. Euskal Herriko ipuin honen aldakien gainean badu Barandiaranek artikulua monografiko bat *Euzko-Enda* aldizkarian. Xabier Azurmenik ere beste aldaera bat bildu eta argitaratu eman du *Egan* 1993-I alean.

LABURPENA

Lan honetan Orozkoko (Bizkaia) hiru informatzaileen kontakizunaren traskripzio fonologikoa dago bilduta. Kontakizun batzuetan pertsonaia mitologikoak aipatzen dira, "lamiak" edo "iratxoak" esaterako. Kontu eder batzuk ere agertzen dira, adibidez "Juan Soldado"ri buruzkoa.

RESUMEN

Este trabajo contiene la transcripción fonológica de las narraciones de tres informantes de la localidad de Orozko (Bizkaia). En algunas de las narraciones aparecen personajes mitológicos como "lamias" o "familiares". Hay también narraciones que son cuentos maravillosos como el relativo a "Juan Soldado".

RÉSUMÉ

Ce travail comprend la transcription phonologique des récits de trois informateurs de la municipalité d'Orozko (Bizkaia). Dans certains de ces récits, des personnages mythologiques, comme des "lamias" ou "familiers", apparaissent. Il y a également des récits qui sont des contes merveilleux comme celui portant sur "Juan Soldado".

SUMMARY

This work contains a phonological transcription of the stories told by three people from the locality of Orozko, Vizcaya. In some of the stories mythical characters appear, such as "lamias" (half woman half dragon) or "familiers". There are also marvellous tales such as those relating to "Soldier John".